

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
05. Ogasun eta Finantza 05. Hacienda y Finanzas	03. Auzitegi Ekonomiko-Administratiboa 03. Tribunal Económico-Administrativo	932.121 Ekonomia-Administraziozko Erreklamazioei buruzko Ebazpen 932.121 Resolución de Reclamaciones Económico-Administrativas

Bizkaiko Foru Auzitegi Ekonomiko Administratiboa, auzialdi bakarrean eta doako prozeduraren bidez, zergak aplikatzeko eta zerga-zigorak jartzeko egintzetan funtzio ikuskaria betetzen duen organoa da, horiek Bizkaiko Foru Aldundiak emanak badira. Halaber, Bizkaiko Foru Aldundiko eskubide publikoaren bestelako diru-sarrerei dagozkien diru-bilketak ikuskatzen ditu.

2022. urtean ekonomiaren eta administrazioaren arloko 855 erreklamazio aurkeztu dira, hots, 100eko 25eko jaitsiera aurreko ekitaldiaren aldean.

2022. urtearen amaieran, 592 erreklamazio zeuden ebazteke eutsi egiten zaio azken urteetako beheranzko joerari.

Erreklamazioak ebazteko batez besteko denborari dagokionez, 2022. urtean 303 egunekoa izan da, oraindik ere auzibidean FAEAn aurkeztutako erreklamazio kopuru handi bati eragiten zioten auzietan sortutako liskarrek eraginda, baita izapidetze konplexua behar izan duten erreklamazio jakin batzuegatik ere.

FAEaren ebazpenen aurka Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian aurkeztutako administrazioarekiko auzi-errekurtsoen kopuruari dagokionez, azken ekitaldietan izandako goranzko joera aldatu egin da aurten, eta 205 izan dira aurreko urteko 427 errekurtsoen aldean. Erabaki judizialen emaitzei dagokienez, Auzitegi horrek emandako epaien % 77 inguru FAEaren irizpidearen aurkakoak izan ziren. Izan ere, jasotako ebazpenen % 75ean, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak hauxe baino ez du erabaki: baiespen-epai jakin baten ondorioak kolektibo berak aurkeztutako errekurtsoetara zabaltzea.

El Tribunal Económico-Administrativo Foral de Bizkaia es el órgano que, en única instancia y mediante un procedimiento gratuito, ejerce la función revisora de los actos de aplicación de los tributos y de imposición de sanciones tributarias dictados por la Hacienda Foral de Bizkaia, así como los de recaudación de otros ingresos de derecho público de la Diputación Foral de Bizkaia.

En el año 2022 se han presentado 855 reclamaciones económico-administrativas, lo que supone un descenso del 25 por 100 respecto del ejercicio anterior.

El volumen de reclamaciones pendientes al final del año 2022 se sitúa en 592 reclamaciones, lo que representa la continuación de la tendencia general a la baja de los últimos años.

En lo que se refiere al tiempo medio de resolución de reclamaciones, en 2022 se ha situado en 303 días, influido todavía por la situación de pendencia generada en la vía judicial en cuestiones que afectaban a un gran número de reclamaciones presentadas en el TEAF así como por determinadas reclamaciones que han precisado una compleja tramitación.

Respecto del número de recursos contencioso-administrativos presentados ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco contra resoluciones del TEAF, este año ha cambiado la tendencia al alza que venía dándose en los últimos ejercicios y se ha descendido a la cifra de 205 frente a los 427 recursos del año anterior. En cuanto al resultado de los pronunciamientos judiciales, alrededor del 77 por 100 de las sentencias emitidas por dicho Tribunal fueron contrarias al criterio mantenido por el TEAF. Este resultado se debe a que en un 75% de las resoluciones recibidas, el TSJPV se ha limitado a acordar la extensión de efectos de determinada sentencia estimatoria a recursos presentados por un mismo colectivo.